

7- Funtzesko Jarduerak

Egin behar diren jarduera gako guztien xehetasuna egin behar da, eta negozioarentzat duten garrantziaren arabera sailkatu. Horrela, funtsezkoak direnak eta ez direnak bereiz daitezke, eta, kasua ikusita, kanpora atera litezke.

Kontuan izango dugu produktua modurik eta babestuenean eramatea horrela ez da arazorik egongo, produktua inolako arazorik gabe helduko baitira. Webgunea ere eguneratuta izango dugu, horrela guztiok izango ditugu onurak. Produktua ekoiztu ahal izateko materiala bilatuko dugu, ondoren ekoizten hasiko ginateke.

Nola funtzionatzen duen eta zer behar den: Loreontzietarako auto-ureztatze sistema elektrikoa loreontzietako landareei ura modu eraginkor eta kontrolatuan emateko diseinatutako sistema automatizatua da. Hona hemen aurkezten dugunak nola funtziona lezakeen azaltzen duen deskribapen orokor bat:

- **Lurraren hezetasun-sentsorea:**

Hezetasun-sentsore bat instalatuko genuen loreontzian. Honen bitartez nolako hezetasun-maila duen jakingo genuen loreak.

- **Kontrolatzaile elektrikoa:**

Hezetasun-sentsorearen irakurketa jasotzen du. Zeruaren edo eguzkiaren argitsunarekin kargatzen da.

- **Parametroen konfigurazioa:**

Erabiltzaileak parametro espezifikoak ezar ditzake, hala nola lurzorurako nahi duen hezetasun-maila eta ureztatze-maiztasuna. Parametro horiek aldatu egin daitezke plantaren beharren arabera.

- **Ur-iturria:**

Auto-ureztatze sistema ur-iturri bati konektatuta dago. Ekoizleak berak bete dezake balbula edo egiten duen euri aren bitartez bete dezake.

- **Kontrol-balbula:**

Balbula hau automatikoki ireki eta ixten da hezetasun-sentsorearen irakurketen eta erabiltzailearen konfigurazioen arabera.

- **Energia-iturria:**

Energia-iturria zeruaren edo eguzkiaren argitasunaren bitartez lortuko zezake.

- **Programazioa eta tenporizadorea (aukerakoa):**

Tenporizadore bat txerta daiteke ureztatze-denbora espezifikoak programatzeko, edo sistema erabat automatizatua izan daiteke hezetasun-sentsorearen irakurketetan oinarrituta.

